Urtxintxa
KALITATEZKO HERRITARRAK

# ONTZITIK ONTZIRA

### Helburuak

Taldean lankidetza eta koordinazio egokia lortzea.

### Parte hartzaileak

+6

### Garapena

Taldeari biribilean jartzeko eskatuko diogu eta parte hartzaile bakoitzeko plastikozko edo paperezko edalontzi bana banatuko dugu.
Edalontziari hortzekin eutsi behar diotela azalduko diegu, eta ur pixka bat isuri beharko dutela edalontzi batetik bestera.
Zorrotz bete beharreko baldintza bat ezarriko diegu ordea: egingo dituzte eskuak erabili.
Ur pixka bat botako dugu edalontzietako batean. Edalontzian ura duenak bere ondoan daukan pertsonaren edalontzira isuriko du ur hori, eta horrela hurrenez hurren, ura jolas honi hasiera eman zion pertsonaren edalontzira iritsi arte.

### Antolaketa

Edalontziak eta pitxerra aldez aurretik prest eduki.

### Jolas eremua

Lan aretoa.

### Denbora

15 minutu.

### Materiala

Parte hartzaile bakoitzeko plastikozko edalontzi bana, eta pitxer bat, ur pixka batekin.

### Aldaerak

Parte hartzaileak eskuak bizkarrean lotuta dauzkatela aritu.

### Gomendioak

Egiaztatu edalontziak jolaserako egokiak direla (jolasa ez baita bideragarria tamaina guztietako edalontziekin).

### Ebaluazioa

Ez da beharrezkoa. Tarte bat utzi daiteke sentipenak eta esperientziak partekatzeko.